

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako gazteen % 85ak erregulartasunez egiten du kirola eta/edo jarduera fisikoren bat

*Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak (NKGI) "Gazteria eta kirola. Nafarroa 2019" ikerketa aurkeztu du, non 800 gazte nafarrek parte hartu duten*

Asteartea, 2019.eko martxoak 5

Nafarroako gazteen % 85ak kirola eta/edo jarduera fisikoren bat egiten du, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak editatutako "Gazteria eta kirola. Nafarroa 2019" ikerketatik ondorioztatzen denaren arabera. Gazte horien artean, gainera, % 92ak astean bi aldiz gutxienez praktikatzen du kirola. Ikerketa 16 eta 30 urte arteko 800 gazte nafarri egin zaie telefono bidezko elkarrizketen bitartez eta gazte nafarrek kirolari eta jarduera fisikoari buruz dauzkaten iritzi eta jarrerak aztertzen ditu, eta baita kirol-eremuari lotutako beste intereseko gai batzuei buruzkoak, eskola-jazarpena, kirol-apustuak eta boluntarioritza besteak beste.

### Kirol-praktika

Kirol-praktika edo jarduera fisikoaren praktika handiari, gainera, erregulartasuna ere gehitu behar zaio. Gazteen % 49k astean bi edo hirutan egiten du kirola eta/edo jarduera fisikoren bat, % 32,7k lau edo bost egunetan, eta % 10ak egunero. Gazteen % 7,7k astean gutxienez behin egiten du kirola. Datu horiek horrela, hamar gaztetik bederatzi kirol eta jarduera fisikotik gertu kokatzen da. Hala ere, gazteen % 52,2k dio ez duela kirola eta/edo jarduera fisikorik nahi bestetan egiten, nahiz eta % 33,6a pozik agertzen den egiten duen kirol-praktikarekin.

Halaber, gazte nafarren % 22,5ek lehiaketako kirola egiten du gaur egun. Lehiaketako kirolen praktika ia lau aldiz handiagoa da gizonen kasuan (% 34,6), emakumeekin alderatuta (% 9,9). Gazte nafarren % 49,3k ez du kirol praktikatu, kirola lehiaketako kirol-jarduera gisa ulertuta. Lehiaketan aritu diren baina jada ez dabilzan kirolari ohien ratioa % 28koa da.

Nafarroako gazteen % 14,1a, bere aldetik, mugimendu gutxikoa da eta ez du ez lehiaketa-kirolik ez inolako jarduera fisikorik egiten; justifikazioen artean denbora-eza dago gehienetan, eta, bigarren maila batean, nagikeria, kirola gustuko ez izatea edo lanaldi edo ikastaldiaren ondorengo nekea bezalako arrazoiak ematen dituzte.

### Motibazioa

Gazteriak bi arrazoi nagusirengatik egiten du kirola edo kirol-praktikaren bat: forman egon eta osasuntsu mantentzeko (% 47,2) eta dibertitzeko eta atsegina duelako (% 33,6). Hauek dira gazteen arteko jarduera fisiko zabalduenak: gimnasioa (% 29,6), korrika egitea (% 24,8),

oinez ibiltzea (% 18,6), igeri egitea (% 10,4), bizikleta/mendiko bizikleta (% 10,2). Lehiaketako kirolen artean futbola (% 36,2), saskibaloia (% 10,8), areto-futbola (% 10,2) eta waterpoloa (% 7,2) dira nagusienak.

Klub, elkarte edo erakunde baten bidezko kirola eta/edo jarduera fisikoaren praktika gazteriaren % 37,2k egiten du, % 69,1ek bere aldetik egiten duen bitartean. Kirola eta/edo jarduera fisikoa praktikatzeko bigarren modu hori gehiago egiten dute emakumeek (% 71,9) gizonek baino (% 66,6). Hala ere, kirola beren kabuz egiteak ez du esan nahi kirol-praktika bakarrik egiten dutenik; izan ere, emakume gazteen % 60k lagunduta egiten du kirola eta/edo jarduera fisikoa.

### **Inkestako fitxa teknikoa**

Ikerketa 800 telefono-elkarrizketatan ardatzu da, % 95,5eko konfiantza mailarako %  $\pm$  3,5ko errore-tartearekin. Ikerketa-unibertsoa Nafarroan erroldatutako 16 eta 30 urte arteko gazteek osatzen dute, kirola eta/edo jarduera fisikoa praktikatzen dutenak ala ez. Telefono bidezko elkarrizketak 2018ko urrian eta azaroan egin ziren.

Nafarroako gazteen kirol-praktika eta jarduera fisikoari buruzko informazio gehiago izateko, [ikerketa osoa eskuraqarri daqo](#) NKGIn webgunean.